

Bizkaiko Lurraldeko
Eskualde-Diagnostikoa

EGIKARITZE-LABURPENA

BIZKAIA OREKAN SAKONDUZ



*Bizkaia
orekan
sakonduz*



2026

BIZKAIA OREKAN SAKONDUZ ESTRATEGIAREN TESTUINGURUA (BOSz)




*Bizkaia
orekan
sakonduz*



EKONOMIA SUSTAPEN SAILAREN ARDATZ ESTRATEGIKOAK (2023 – 2027)

Ekonomia Sustatzeko Sailaren helburua da Bizkaiak lurralde **berritzaile, talentudun, erakargarri, konektatu** eta **orekatu** gisa duen posizionamendua indartzea, bermatzeko lurraldea ekonomikoki eta enpresarialki lehiakorra dela, industrial dela eta zerbitzu aurreratuak, kalitatezko enpleguak, lurralde-oreka eta gizarte-kohesioa dituela.





BIZKAIA OREKAN SAKONDUZ (BOSZ) ESKUALDEKO LEHIAKORTASUN ESTRATEGIA

Bizkaia Orekan Sakonduz (BOSz) eskualdeko lehiakortasun-estrategia 4 jarduera-zutaberen, 3 helburu estrategikoren eta zeharkako 2 helbururen inguruan egituratzen da.



01
ANIZTASUN
HANDIKO
LURRALDE bati
erantzuteko beharra



02
ESKUALDEKO
ERAGILEEN potentziala



03
Estrategiak garatzeko
LANKIDETZA



04
ONGIZATEA helburu duen
LEHIAKORTASUN-ESPARRUA



*Bizkaia
orekan
sakonduz*

HELBURU ESTRATEGIKOAK



HE 1

Bizkaiko lurraldeko industriaren eta zerbitzu aurreratuen sektoreetako **enpresen lehiakortasuna** handitzea.



HE 2

Tokiko garapenerako eragileen gaitasunak garatzen laguntzea, bai lurraldeko enpresa guztietara iristeko, bai ekonomia sustatzeko politikak eskualde bakoitzeko enpresa-sarearen ezaugarrietara egokitzeko.



HE 3

Maila anitzeko gobernantza antolatzea, hainbat eragilek maila guztietan gauzatzen dituzten ekintzen efizientzia hobetzeko.

ZEHARKAKO HELBURUAK



ZH 1

Estrategia eta haren eragina ebaluatzea.



ZH 2

Emaitzak ezagutarazi eta zabaltzea, **"Bizkaia Orekan Sakonduz" ezaguna izan dadin Bizkaian**, eskualde-lehiakortasuna eta lurralde-oreka sustatzeko estrategia gisa.



ESKUALDEKO LEHIAKORTASUN ERAGILEAK

Eskualdeko lehiakortasun eragileak DFB/Beaz-ek bultzatutako strategiaren protagonista eta bideratzaile nagusiak dira, eta, azken batean, industriako eta zerbitzu aurreratuetakako ETEak dira hartzaileak.

BIZKAIAKO FORU ALDUNDIA ETA BEAZ

Eskualde bakoitzaren errealitatera egokitutako lehiakortasun-programa, -ekimen eta -dinamiken sustatzaileak



BIZKAIKO INDUSTRIAKO ETA ZERBITZU AURRERATUEKAKO ETE-AK

Xede-publikoa



ESKUALDEKO LEHIAKORTASUN ERAGILEAK

Eskualde bakoitzeko lehiakortasun-eragileak



Bizkaia
orekan
sakonduz



ALIATU

ESTRATEGIKOAK

Euskadiko eskualdez gairikokoak edo sektorekoak.

+ OTROS AGENTES COLABORADORES...





BOSZ ESTRATEGIAREN BILAKAERA

BOSz estrategia sortu zenetik funtsezko hiru etapetan oinarritu da, eta sarea finkatu ondoren, gaur egungo azelerazio-fasean aurkitzen da (2023-2027).



2016 - 2020

Bizkaia Orekan jarri zen abian, 2020an, Eskualde Garapenerako Zerbitzua sortu zen Bizkaiko Foru Aldundiaren barruan.



2020 - 2023

- Finkatzea eta sakontzea, lantalde egonkor bat sortuz.
- Bizkaia Orekan Sakonduz sareen-sare gisa hedatu zen, tokiko eta eskualdeko 23 garapen-agentziez osatua.
- Agentziak tokiko erreferentziak dira, eta haiek ere lankidetza-ekosistemak eratzen dituzte.



2023 - 2027

Azelerazio-etapa

Udalen eta eskualdeen lehiakortasunaren alde, Bizkaiko lurralde-orekaren alde.

HARREMAN-EREDUA

BOSz BATZORDE BETEARAZLEA (BFA, Beaz)

*Zuzendaritza estrategikoa
eta erabakiak hartzea*

FORO TEKNIKOAK

(Agentzietako eta BFA/Beaz-eko talde teknikoak)
Partekatzea, elkarlanean aritzea, trukatzea, elkarrekin diseinatzea, laguntzea

INTERES OROKORREKO SAIO TEKNIKOAK

Ezagutza, aukerak, jardunbide egokiak, beharrak... partekatzeko topaguneak.

LAGUNTZA ETA JARRAIPEN TEKNIKOAK – ERREFERENTZIAKO AGENTZIAK

Etengabeko eta zuzeneko komunikazio-kanala agentzietako eta BFA/Beaz-eko talde teknikoaren artean

URTEKO BOSz TOPAKETA

(Agentzietako eta BFAko talde tekniko eta politikoak, eragileak, erakunde aliatuak, etab)
Komunikazioa eta hedapena

AHOLKULARI-TALDE ADITUA (BFA, Beaz, Orkestra)

ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARRIZKETAK

Agentzietako eta eskualdeko beste eragile batzuetako erakunde-arduradunen eta Ekonomia Sustatzeko Saileko zuzendaritzaren arteko banakako bilerak

BILAKAERAREN XEHETASUNA - BOSz ESTRATEGIAREN 10. URTEURRENA (2016-2021)

2016-2019

BIZKAIA OREKAN ESTRATEGIAREN JATORRIA ETA DISEINUA

2016

Bizkaia Oreakan sortu zen, ESSk bultzatuta, garapen ekonomikoaren arloan lurraldeen arteko desberdintasunei erantzuteko.

Lankidetzaren eredu bat ezartzen da.

BIZKAIKO BANAKETA 4 EREMUTAN

4 jarduera-zutabeak:

1

Lurralde anitz baten aurrean erantzun beharra

3

Estrategiak garatzeko lankidetzaren eredu bat ezartzen da.

2

Eskualdeko eragileen potentziala

4

Lurralde-lehiakortasunaren esparrua

2020

BOSz-EN HASIERA OPERATIBOA

- Eskualdeko Garapen Zerbitzua** sortu da BFAren barruan, estrategia garatzeko eta finantza-bultzada emateko.
- Eskualdeko lehiakortasuna bultzatzeko Foru Programa** onartu da. Programa horrek **egiturazko** finantzaketa ematen die eskualdeko lehiakortasuneko jarduerari.
- Maila anitzeko gobernantza-eredua** definitzen da, BFA eta Beaz ekimenaren bultzatzaile direla, eta BOSz sareko erakundeak eta agentziak protagonista direla. Orkestra lehiakortasunean aholkulari aditu gisa, eta aliatu estrategikoak sektoreetako erreferente gisa edo lehiakortasun-palankekin lotutako gaietan (klusterrak, hala nola Gaia, Aclima eta beste batzuk, hala nola Innobasque).

2020-2021

HEDATZEA ETA SENDOTZEA

Lehen urte osoa BOSz merkaturatu zenetik. **Harreman eredu berriaren trantsizio eta sendotze urtea.**

KUDEAKETARAKO ETA EBALUAZIORAKO TRESNAK

Helburu estrategikoen lorpen-mailaren **jarraipena** eta **datu-bilketa sistematizatua.**

KOMUNIKAZIOA

Irudi korporatibo berria eta logoa, sareko lana irudikatuz. **BOSz-eko Komunikazio Planaren** oinarriak finkatzen dira, eskualdeko erakundeek ekintzen ikusgarritasuna indartzeko eta BOSz mezuari koherentzia eta batasuna emateko.



BILAKAERAREN XEHETASUNA - BOSz ESTRATEGIAREN 10. URTEURRENA (2022-2026)

2022-2023

ANTOLAMENDU- ETA METODOLOGIA-HELDUTASUNA
ETA SAREKO LANA SENDOTZEA

Eskualde-garapenaren **sare-posizioa** indartzen da, eta gobernantzako, neurketako eta komunikazioko mekanismoa finkatzen da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko lehen diagnostikoa argitaratzea eta Lehiakortasunaren Behatokia abian jartzea (Orkestra – Lehiakortasunerako Euskal Institutua)



2024

AZELERAZIOA

Barne-sendotzearen eta estrategia sendotzearen etapa baten ondoren, 2023tik aurrera etapa berri bat hasiko da, **enpresetan** inpak-tua areagotzean, **eskualde arteko lankidetzeta datuetan oinarritutako kudeaketa indartzean zentratua**.

- Trantsizio berdeko, trantsizio teknologiko-digitaletako, berrikuntzako eta nazioartekotzeko **ekimenei lehentasuna ematea**.
- **Eskualde arteko lankidetzeta**, jasangarritasun arloko erreferentziazko proiektuetan:



Bizkaiko Lurralde Historikoko Lehiakortasunaren bigarren diagnostikoa argitaratzea (Orkestra – Lehiakortasunerako Euskal Institutua).

2025

PROIEKZIO ETA POSIZIONAMENDU ESTRATEGIKOA

Sendotze operatiboa eta ehunaren gaineko eragina handitzea, errefortzu metodologikotik, sareko lanaren heldutasunetik eta aurreko urteetan garatutako datuetan oinarritutako kudeaketatik abiatuta.



- **Lehiakortasuneko agenteekiko lankidetzeta**: LHko zentroak, enpresa-elkarteak, etab.
- Enpresen **zentsu zentralizatua eguneratzea**, Gislur berria sortzea.

GISLUR+

BOSz sarearen **lehen hausnarketa-jardunaldia**

BOSz SAREKO UDALERRIEN MAPA

BOSz sarearen helburua Bizkaiko **113 udalerriak** hartzea da (Bilbo izan ezik guztiak), 12 eskualdetan banatuta daudenak eta sareko erakunde eta agentzia desberdinek bertan jarduten dutenak.





FINANTZA-TRESNA - ESKUALDEEN LEHIAKORTASUNA BULTZATZEKO PROGRAMA (EL)

Programa horren bidez eskualdeen lehiakortasuna indartu nahi da, eskualde-garapenerako eragileek industriaren eta zerbitzu aurreratuen sektoreko funtsezko lehiakortasun-palanketan duten gaitasuna sendotuz.

ZEIN DA PROGRAMAREN HELBURUA?

Agentziei ekonomia sustatzeko ekimenak garatzen laguntzea, haien inguruko enpresen lehiakortasuna indartzeko.


Industria-enpresen eta horiei lotutako zerbitzu-enpresen lehiakortasuna hobetzeko jarduerak, honako hauek bultzatuz:


- Berrikuntza
- Nazioartekotzea
- Ekintzailtza aurreratua

ZER LAGUNTZEN DU DIRUZ?

Toki eta eskualde-garapenerako eragileen jarduerak, ekonomia-sustapenarekin lotuta dituzten gaitasunak sendotzeko, batik **bat gobernantza-ereduak eta eskualde-plan estrategikoak garatzeko.**

NOR DA HARTZAILEA?

 **Industria eta hari lotutako zerbitzuak sustatzeko agentziak**

 **Industria eta hari lotutako zerbitzuak sustatzeko beste erakunde batzuk**

LAGUNTZAREN GEHIENEN ZENBATEKOA

 200.000€

 100.000€

ESKUALDEKO LEHIAKORTASUNA BULTZATZEKO PROGRAMAREN BARRUAN BULTZATUTAKO PROIEKTUAK (EL)

Eskualdeko lehiakortasuna bultzatzeko programaren (EL) esparruan, **trantsizio eta joera handiekin bat datozen proiektuak** proposatzen dira, **industria-sarearen eta hari lotutako zerbitzuen lehiakortasuna sustatzeko** eta lurraldearen garapen orekatua eta jasangarria bultzatzeko.

<h3>1</h3> <p>TRANTSIZIO ETA JOERA NAGUSIAK</p>	<h3>2</h3> <p>PROIEKTU SEKTORIALAK</p>	<h3>3</h3> <p>LEHIAKORTASUNERAKO FUNTSEZKO FAKTOREAK</p>	<h3>4</h3> <p>GOBERNANTZA ETA AGENTZIEN BALIO-PROPOSAMENA INDARTZEA</p>
<ul style="list-style-type: none">  Mugikortasun jasangarria  Trantsizio Digitala (SUSPERTZE DIGITALA)  Trantsizio Berdea (ENPRESA BERDEA)  Belaunaldi-erreleboa 	<ul style="list-style-type: none">  Ekonomia Urdina (ITSASOA ETA IRRISTATZEA, ARRANTZA)  Zuraren industria  Eraikuntza  Automobilgintza 	<ul style="list-style-type: none">  Bezero/merkatu berriak irekitzea (SALBIDE)  Berrikuntza (prozesuan, produktuan, antolaketan...)  Jarduera ekonomikorako eremuak eta industrialdeak dinamizatzea  Enpresa-lankidetzak 	<ul style="list-style-type: none">  Eskualdeetako gobernantza-ereduak  Eskualdeko plan estrategikoak  Eskualdeko agentzien balio-proposamena indartzeko jarduerak



PROIEKTUEN XEHETASUNEN FITXETARAKO ESTEKA <https://www.bizkaia.eus/es/bizkaia-orekan-sakonduz>

OHARRA: proiektu garrantzitsuenak gorritz nabarmenduta daude, esleitutako zenbateko bolumenaren, parte hartu duten agentzia kopuruaren eta parte hartu duten enpresen arabera (2025).



2030 AGENDAREN GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEI (GJH) EGINDAKO EKARPENA

BOSz-ek, lurraldearen garapen orekatuaren alde, aliantzak sustatzearen alde eta horrek enpresetan eta Bizkaiko jarduera ekonomikorako guneetan duen eraginaren alde egindako apustua 2030 Agendako 11., 17. eta 8., 9. GJHekin lotuta dago.



8. GJH: LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

- ELren esparruan enpresen lehiakortasuna sustatzeko proiektuetara **6,8 M€** bideratu dira.
- 5,2M€ (%76) enpresen lehiakortasuna hobetzeko jardueretara (A motakoak) zuzendu dira.
- 1,6M€ (%24) erakundeen gaitasunak sendotzera (B motakoak).
- **2.428 enpresatan** izan dute eragina ELren esparruan.



9. GJH: INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURAK

- 102 proiekturi laguntza eman zaie **35 jarduera-eremu ekonomiko hobetzeko** (3,8 M€-ko inbertsioa).
 - **Inbertsio bereziak:** Zulaibar Campusa, Arrantz Eskola etab.
 - **Lurzoru-funtsa:** Zallako Elkartegian eta Ispasterren.
- **663k€** esleitu dira Eskualdeko Lehiakortasuna Sustatzeko Programaren (EL) esparruan **berrikuntza-proiektuak** garatzeko.



11. GJH: HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK

- **Enpresa Berdea** proiektuan erakunde eta agentzien parte-hartze aktiboa izan da, 158 enpresaren trantsizio berdea bultzatzeko lankidetzan.
- **Industrialdeen hobekuntza:** iraunkortasun-irizpideak txertatzeko urratsak eginez, besteak beste mugikortasun jasangarriko planak, energia-eraginkortasuneko neurriak eta antzeko proiektuak sustatuz.



17. GJH: HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZAK

- **Lankidetz**a sustatzea **22 erakunde independentek** osatzen duten BOSz sarearen bidez, aliantzak sortuz.
- BOSz estrategiaren **erakundeen arteko lankidetz**a sustatzea, maila anitzeko gobernantza duelako.
- 241 proiektu garatu dira lankidetzan oinarrituta EL-ren esparruan.
- **4 erakunde suprakomarkal edo sektorialekin** aliantza estrategikoak sendotu dira, baita Euskadiko beste eragile laguntzaile batzuekin ere.

ESKUALDE- DIAGNOSTIKOAREN ONDORIOAK



*Bizkaia
orekan
sakonduz*





“ONGIZATEA HELBURU DUEN LEHIAKORTASUN-ESPARRUA”, ORKESTRAK GARATUA

Lurralde-lehiakortasunaren esparrua Bizkaia Orekan Sakonduz strategiaren funtsezko 4 zutabeetako bat izanik, txosten honetan jasotako eskualde-diagnostikoak Orkestrak – Lehiakortasunerako Euskal Institutuak garatutako “Ongizatea helburu duen lehiakortasun-esparrua” oinarritzat hartu da. Esparru horrentan, Orkestrak lurraldeko ongizate-maila hartzen du aintzat, eskualdeen lehiakortasun-eredua eta etorkizuneko jasangarritasuna zehazten laguntzen duen alderdi gisa.

ORKESTRA: Lehiakortasunaren esparrua ongizatearen zerbitzura

1


EGITURAZKO TESTUINGURUA:

Denboran zehar irauten duten faktoreak dira, politiken bidez epe laburrean aldatzeko zailak (lurralde-estrategia baten abiapuntutzat hartzen dira): geodemografia, ekonomia- eta enpresa egitura, eta erakundeak.

3

EMAITZA EKONOMIKO-ENPRESARIALAREN ALDERDIAK:

- **Produktibitatea eta per capita BPGd-a:** sistemak balio erantsia sortzeko duen ahalmena neurtzen dute.
- **Errentagarritasuna:** lurralde bateko ekonomia- eta enpresa-sistemak bere jardueretatik errentagarritasuna sortzeko duen ahalmena adierazten du.
- **Berrikuntza:** lurralde bateko ekonomia- eta enpresa-sistemak berrikuntza-emaitzak sortzeko duen ahalmena hartzen du barne.
- **Nazioartekotzea:** sistemak nazioartekotzeko duen ahalmena neurtzen du, enpresa- eta lurralde-jarduera lehiakorren isla gisa.



2

ONGIZATEAREN ALDERDIAK:

Lurralde bateko pertsonek ongizatea adierazten dute, adierazle-kopuru mugatu baten bitartez. Orkestraren esparrurako, **7 alderdi** nagusi aukeratu dira bereziki (bizitzarekiko gogobetetasuna, bizitza materiala, enplegua, bizitza soziala, hezkuntza, osasuna eta ingurumena).

4

PALANKA DINAMIKOAK:

Balio ekonomikoa eta ongizatea sortzeko:

- **Natura:** zuzeneko zein zeharkako eragina duten faktoreak.
- **Kapital fisikoa:** pertsonek garatutako aktibo ukigarriak.
- **Finantzaketa:** balio ekonomikoa eta ongizatea sortzarekin lotutako finantza-faktoreak.
- **Ezagutza:** ezagutzan eta IKTetan oinarritutako aktibo ukiezinak.
- **Pertsonak:** ezagutzak, gaitasunak, osasuna eta lan-merkatuan parte hartzea.
- **Erakundeak:** interakzio sozialak egituratzen dituzten arau-sistemak eta erakundeak.

BIZKAIKO LURRALDEKO ESKUALDEEN DIAGNOSTIKOAREN EDUKIEN AURKIBIDEA 2026

1. ESKUALDEEN LEHIAKORTASUNAREN ERRADIOGRAFIA

Iturria: Orkestraren eskualdeko lehiakortasunaren behatokiko adierazleak.

2. ENPRESEN PARTAIDETZA EKONOMIA SUSTATZEKO SAILAREN PROGRAMETAN (2015-2025)

Iturria: Ekonomia Sustatzeko Sailaren programetako parte-hartzearen historikoa

3. JARDUERA EKONOMIKORAKO EREMUEN EGOERA (2019-2025)

Iturria: Industrialdeak Hobetzeko Programako eta GISLUREko parte-hartzearen historikoa.

4. ESKUALDEETARAKO FINANTZAKETA (2020-2025)

Iturria: EL Programan jasotako finantzaketa. Zenbait kasutan, eskualdeetarako finantzaketan, programa horretatik kanpoko proiektu estrategiko bereziak sartu dira, analisisian sartzen ez direnak.

5. ESKUALDE BAKOITZEAN EKONOMIA SUSTATZEN DUTEN ERAGILEAK

Iturria: BOSz sareko kideei buruzko informazioa eta Eskualdeko Lehiakortasuna Sustatzeko Programaren (EL) esparruan agentziei lagundutako proiektuak.

ESKANEATU QR KODEA 2026KO
ESKUALDE DIAGNOSTIKOAREN
XEHEBASUNETAK IKUSTEKO



2026ko Eskualde Diagnostikoak aurkibidean zehaztutako atal guztiak
aztertzen ditu Bizkaiko 12 eskualdeetan.

Eskualde bakoitzaren xehetasunak kontsultatu ahal izateko, ikusi
eskualde-diagnostiko osoa. **QR kodearen** bidez.



ONDORIOAK

1. ESKUALDEEN LEHIKORTASUNAREN ERRADIOGRAFIA

Eskualdeen lehiakortasunaren oinarriko adierazleak abiapuntutzat hartuta, eta Orkestra – Lehiakortasunerako Euskal Institutuak egindako ongizatera bideratutako lehiakortasun-esparrua erreferentziatzat hartuta, lurralde bakoitzaren posizio erlatiboaz aztertzen da.

Eskualde-tipologia bat proposatzen da, lurralde-aldakortasun handiena biltzen duten adierazleetan duten antzekotasunetik abiatuta (**industria-enpleguaren pisua eta merkataritza-zerbitzu aurreratuetan**), enpresa-eskalako aldagaiekin eta faktore sozioekonomikoekin osatuta (< 10.000 biztanle dituzten udalerriak, zahartzea, errenta eta udal-gastua per capita). Oro har, patrioiak egonkor jarraitzen du aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta aldakuntza puntual inkrementalak izan ditu. **Txorierrri nabarmentzen da, bere posizioa pixka bat sendotuz, industriaren eta zerbitzu aurreratuen baterako pisua % 50,1etik % 51,4ra igo baita.**

Horrela, 4 eskualde-talde garrantzitsu identifikatu dira (ikus 17. orrialdea xehetasun gehiagorako):

1 INDUSTRIAN ETA ZERBITZU AURRERATUETAN PISU HANDIA DUTEN ESKUALDEAK

Txorierrri eta Durangaldea nabarmentzen dira, Txorierrriko Parke Teknologikoak eta Durangaldean finkatutako industria-sektoreek bultzatutako lehiakortasun handiagatik. Eskualde horiek liderrak dira berrikuntzan, punta-puntako enpresak baitaude teknologia aurreratuan eta automobilgintzan, eta hazkunde jasangarriaren erreferente dira Bizkaian.

2 INDUSTRIAKO PISU ERTAINA - HANDIA DUTEN ESKUALDEAK


Lea-Artibaik, Meatzaldea eta Mungialdea industria-profil sendoa dute, eta presentzia nabarmena dute meatzaritzan, metalurgian eta ekonomia urdinean, besteak beste. Meatzaldea da 50 langiletik gorako enpresetan enplegu gehien duen eskualdea; Mungialdea, berriz, batez besteko errenta altuagatik nabarmentzen da. Produkzio-egitura egonkorra eta industria-espezializazio handia duten eskualdeak dira.

3 INDUSTRIAKO BATEZ BESTEKO PISUA DUTEN ESKUALDEAK

Arratia, Busturialdea, Enkarterri eta Nerbioi-Ibaizabalek pisu ertaina dute industria-sektoreetan, eta industria-establezimenduen batez besteko tamaina hazten ari da. Eskualde hauek profil mistoa dute: batzuk landa-eremuak dira, hala nola Enkarterri (%100a <10.000 biztanleko udalerrietan), eta beste batzuek lotura handiagoa dute hiriguneekin (Nerbioi-Ibaizabal).

4 INDUSTRIAN PISU TXIKIA DUTEN ESKUALDEAK

Eskuinaldeak, Ezkerraldeak eta Uribe-Kostak pisu industrial txikia dute. Ezkerraldeak du baliorik txikiena, enpleguaren %5,96-a industrian izanik, eta ondoren Eskuinaldeak, %7,83rekin. Uribe-Kosta %13,71ra iristen da, eta eskualde honek batez besteko errenta handia du ere. Oro har, dibertsifikazio ekonomikoa eta berrikuntza indartzea komeni den eskualdeak dira.



1. ESKUALDEEN LEHIAKORTASUNAREN ERRADIOGRAFIA

ADIERAZLE EKONOMIKOAK ETA LEHIAKORTASUNAREN OINARRIZKO ADIERAZLEAK ESKUALDEKA (2026)

Industria-enpleguaren eta merkataritza-zerbitzu aurreratuen pisu konbinatutik abiatuta, eskualde-profil argiak markatzen dira, eta **Txorierrri da produkzio-intentsitate aurreratuen buru** (%51,4), **Parke Teknologikoak** bultzatuta, eta **Durangaldea** dago ondoren (%47,07). Aurreko urtearekin alderatuta, nabarmentzekoak dira **Durangaldean, Enkarterrin, Nerbioi Ibaizabalena eta Txorierrin** egindako aurrerapenak.

ESKUALDEA	INDUSTRIA-ENPLEGUA (%)		MERKATARITZA ZERBITZU AURRERATUETAKO ENPLEGUA (%)*		INDUSTRIA-ENPLEGUA + ZERB. ENPLEGUA AURRERA. (%)	INDUSTRIA-ESTABLEZIMENDUEN BATEZ BESTEKO TAMAINA		50=< LANGILE DITUZTEN ESTABLEZIMENDUETAKO ENPLEGUA (%)		10.000 BIZTANLETIK BEHERAKO UDALERRIETAKO BIZT. (%)		ZAHARTZE-TASA (%)		BATEZ BESTEKO ERRENDA PERTSONAKO (€)		BATEZ BESTEKO UDAL-GASTUA BIZTANLEKO (€)	
	EDAU-1 (2023)	EDAU (2024)	EDAU-1 (2024)	EDAU (2025)	EDAU	EDAU-1 (2023)	EDAU (2024)	EDAU-1 (2024)	EDAU (2025)	EDAU-1 (2024)	EDAU (2025)	EDAU-1 (2024)	EDAU (2025)	EDAU-1 (2022)	EDAU (2023)	EDAU-1 (2022)	EDAU (2023)
ARRATIA	% 27,76	↓ % 26,33	% 5,13	% 5,25	% 31,58	18,48	↑ 19,42	% 41,84	% 42,9	% 43,27	% 43,37	% 24,03	% 24,39	20.545,00€	↑ 21.738,42€	1.478,15€	↑ 1.655,59€
BUSTURIALDEA	% 20,04	% 19,94	% 8,37	% 8,45	% 28,39	13,84	↑ 14,85	% 38,22	% 38,91	% 27,31	% 27,16	% 25,07	% 25,3	19.908,28€	↑ 21.113,24€	1.479,87€	↑ 1.547,48€
DURANGALDEA	% 36,09	% 35,88	% 10,70	↑ % 11,18	% 47,07	21,9	22,27	% 45,94	% 45	% 32,74	% 32,67	% 22,87	% 23,16	20.602,02€	↑ 22.078,53€	1.497,95€	↑ 1.587,59€
ENKARTERRI	% 18,15	% 18,31	% 6,94	% 7,02	% 25,33	9,25	9,59	% 26,25	% 26,25	% 100	% 100	% 23,82	% 24,09	18.002,76€	↑ 19.109,45€	1.407,05€	↑ 1.483,13€
ESKUIALDEA	% 8,33	↓ % 7,83	% 19,28	% 18,51	% 26,35	12,32	12,08	% 42,85	% 42,54	% 100	% 100	% 26,17	% 26,51	24.065,47€	↑ 25.092,87€	1.357,86€	↑ 1.427,38€
EZKERRALDEA	% 6,01	% 5,96	% 8,75	% 8,42	% 14,38	9,17	9,4	% 40,67	↑ % 43,69	% 0	% 0	% 25,56	% 25,69	17.656,12€	↑ 18.790,37€	1.373,41€	↑ 1.449,64€
LEA-ARTIBAI	% 35,36	% 35,86	% 5,97	↓ % 5,67	% 41,52	22,08	↑ 23,53	% 34,82	% 34,15	% 0	% 0	% 25,89	% 26,06	19.590,80€	↑ 20.730,29€	1.610,70€	↑ 1.717,25€
MEATZALDEA	% 33,40	% 33,85	% 6,37	% 6,44	% 40,29	21,98	22,43	% 41,88	↑ % 44,12	% 69,37	% 69,73	% 23,81	% 24,14	18.252,91€	↑ 19.540,46€	1.636,79€	↑ 1.795,07€
MUNGIALDEA	% 32,26	↑ % 34,04	% 9,14	↓ % 8,68	% 42,72	16,24	↑ 17,03	% 32,43	↑ % 35,24	% 36,22	% 36,47	% 20,18	% 20,44	23.646,25€	↑ 24.871,58€	1.604,40€	↓ 1.519,49€
NERBIOI-IBAIZABAL	% 23,91	% 24,46	% 6,18	% 6,03%	% 30,49	16,95	17,41	% 33,22	% 33,86	% 18,96	% 19,07	% 24,14	% 24,33	18.410,20€	↑ 19.644,61€	1.393,26€	↑ 1.481,53€
TXORIERRI	% 26,45	% 27,33	% 23,40	% 24,09	% 51,42	23,37	↑ 24,74	% 55,08	% 53,84	% 100	% 100	% 21,45	% 21,63	22.233,95€	22.995,81€	1.943,74€	2.008,68€
URIBE-KOSTA	% 13,22	% 13,71	% 12,96	% 12,98	% 26,69	12,69	↑ 14,01	% 37,42	% 37,84	% 65,96	% 66,71	% 19,05	% 19,25	22.993,70€	↑ 24.281,47€	1.292,59€	↑ 1.525,90€

- █ Industrian eta zerbitzu aurreratuetan pisu handia duten eskualdeak (>% 45)
- █ Industrian pisu handia duten eskualdeak (%30 - %45 artean)
- █ Industrian batez besteko pisua duten eskualdeak (%15 - %30 artean)
- █ Industrian pisu txikia duten eskualdeak (< %15)

*Merkataritza-zerbitzu aurreratuen enpleguaren adierazlearen kalkulua 2024an birformulatu da, eta sektore hauek sartu dira aurtin: H: Garraioa eta biltegiatzea (EJSN 50-51); J: Informazioa eta komunikazioak (EJSN 58-63); K: Finantza- eta aseguru-jarduerak (EJSN 64-66); M: Lanbide-, zientzia- eta teknika-jarduerak (EJSN 60-93) eta arte-jarduerak (entreteneimendua);
Iturria: Eustat erakundearen kontu ekonomikoak
OHARRA: %5eko gora beherak nabarmendu dira, berdez hazkundera eta gorri beherakada, aurreko urtearekin alderatuta.



ONDORIOAK

1. ESKUALDEEN LEHIAKORTASUNAREN ERRADIOGRAFIA

Era berean, eskualdeak "klusterizatzeko" balio diguten adierazleei erreparatuz, honako hau azpimarratzen da:



Industriako enpleguaren ehunekoak nahiko egonkor mantendu da eskualde gehienetan. Hala ere, bi mugimendu nabarmentzen dira: alde batetik, **Mungialdeko hazkundea** (+%6), bere profil industriala indartzen duena, eta, bestetik, **Eskuinaldeko** (-%6) eta **Arratiako** (-%5) jaitsierak. Nolanahi ere, **Durangaldea** da oraindik ere industria-pisu handiena duen eskualdea (%35,88), Lea Artibaitik oso gertu (%35,86).

Merkataritza-zerbitzu aurreratuetako enpleguari dagokionez, azken bi ekitaldietako aldakuntzak txikiak izan dira. **Txorierrri** da, alde handiarekin, **espezializazio handieneko** eskualdea, aldi berean **industria-pisu garrantzitsua** eta **zerbitzu aurreratuetan** handiena biltzen baititu. Adierazle agregatuaren balio altuenean islatzen da hori (%**51,42**), eta, gainera, **pixka bat hobetu da** (+%3). Halaber, atzerakadak ikusten dira **Mungialdean** eta **Lea Artibaian** (- %5).



Industria-establezimenduen batez besteko tamaina ia konstante mantendu da, aldaketa aipagarri batzuk agertzen diren arren. **Txorierrri** du **batez besteko tamaina handiena** (24,74) eta, gainera, hazi egin da (+%6); hazkunde erlatibo handiena, berriz, **Uribe-Kostan** gertatu da (+%10). **Busturialdean** eta **Lea Artibain** ere igoerak izan dira (+%7).



Zahartze-tasak gora egiten jarraitzen du modu homogineoan eskualde guztietan (+%1). **Eskuin-aldea** nabarmentzen da **zahartze handieneko eskualde** gisa (% 26,51), ondoren **Lea Artibai** (% 26,06) eta **Busturialdea** (% 25,30).




Bizkaiko ia eskualde guztietan, **batez besteko errenta pertsonala** eta **biztanle bakoitzeko batez besteko udal-gastua** gehitu egin dira. Errentari dagokionez, **Eskuin-aldea** da **mailarik handieneko eskualdea** (25.092,87€), eta hazkunderik handienak **Durangaldean, Meatzaldean eta Nerbioi-Ibaizabalen** daude (+%7). Udal-gastuari dagokionez, **Txorierrin** dago **mailarik altuena** (2.008,68 €), eta hazkunderik handiena **Uribe-Kostan** (+%18), Arratian (+%12) eta **Meatzaldean** (+%10) izan da.

2. ENPRESEN PARTAIDETZA ESS-REN PROGRAMETAN



2015. eta 2025. urteen artean, **Ekonomia Sustatzeko Saileko programek* (ESS)** industria-enpresetara eta horiekin lotutako zerbitzuetara bideratutakoak **5.105 proiekturi baino gehiagori** eman diete estaldura, eta **160 milioi euro inguruko laguntza-bolumena** mobilizatu dute. **ESSk eskualdeen industria-enpresen eta horiekin lotutako zerbitzuen lehiakortasuna babesteko egiten duen apustuak gora egin du azken 10 urteetan**, eta 2025ean gehieneko maila lortu du. Urte horretan, 19,6 milioi euro baino gehiago bideratu ziren laguntzeara; horrek esan nahi du 2015etik aurrekontua % 109 handitu zela (bikoitza baino gehiago), eta aurreko urtean (2024) baino % 16 gehiago.

ESSK EMANDAKO LAGUNTZAK* (2015-2025, milaka €)



URTEA	Emandako dirulaguntzak (k€)	Hazkunde metatua Vs 2015	Urteko hazkundera vs aurreko urtea
2015	9.384 k€	-	-
2016	11.742 k€	% 25	% 25
2017	13.761 k€	% 47	% 17
2018	12.001 k€	% 28	% -13
2019	12.250 k€	% 30	% 2
2020	13.927 k€	% 48	% 14
2021	17.502 k€	% 87	% 26
2022	15.559 k€	% 66	% -11
2023	16.662 k€	% 78	% 7
2024	16.866 k€	% 80	% 1
2025	19.609 k€	% 109	% 16
TOTALA	159.264 k€		

*Fuente: Ayudas DPE (Diputación Foral de Bizkaia)

* Programa hauek hartu dira kontuan: 2I: berrikuntza eta inbertsioari laguntzeko 2I programa; 3I: berrikuntza, nazioartekotzea eta inbertsioari laguntza integrala; B1: ingurumen-inpaktuaren neurketa; B2: inbertsio berdeak; CR: enpresa berritzaileen sorrera; D1: digitalizazio-planak eta jasangarritasuna; D2: oinarriko digitalizazio-proiektuak; D1: digitalizazio-planak eta jasangarritasuna; D2: oinarriko digitalizazio-proiektuak (2021etik aurrera aktibo); D3: digitalizazio-proiektu aurreratuetan; D4: ingurumen-berrikuntzako proiektuak eta ekonomia zirkularra; IT -Elkarrekin: nazioartekotzea Kudeaketa aurreratua; KO: Elkarlanean: enpresen arteko lankidetzak (azken deialdia 2024an); KU: Innobideak-Kudeabide. Kudeaketa aurreratua; RP: Industrialdeetako enpresetan egindako inbertsioak; SA: Berrakibatuzko adimenduna; TX: Txeko Teknologikoak



ONDORIOAK

2. ENPRESEN PARTAIDETZA ESS-REN PROGRAMETAN

Laguntzak programaka eta eskualdeka nola banatzen diren ikustean, ikus daiteke zenbateko handiena berrikuntzarako eta inbertsiorako laguntza-programetara bideratzen dela (laguntza guztien %60 inguru). Durangaldea eta Txorierri diru-laguntzen buru diren arren, eskualde guztiek jaso dituzte, neurri handiagoan edo txikiagoan, ESSren programetako laguntzak, eskualde bakoitzeko industria-enpresen sarearen errealitatearen arabera, lurralde-kapilaritate nabarmena erakutsiz.

- Programei dagokienez, **31 eta 21** dira zenbateko handienak metatu dituztenak: **49,1 M€ (%30,8) eta 47,1 M€ (%29,6)**, hurrenez hurren. Guztira, 96 M€ baino gehiago lortu dira. Bigarren mailan daude nazioartekotze-programa (IT) 16,8M€-rekin (%10,5), digitalizazioari laguntzeko programak - D2, D3 (%10,42) eta enpresa berritzaileak sortzeko programa - CR (%8,3).
- **Eskualde-ikuspegitik**, metatutako bolumen handienak **Durangaldean** (43,2M€ ; % 27) eta Txorierri (31,0M€; % 19) daude. Hala eta guztiz ere, banaketa zabala da, eta lurralde osora iristen da: Uribe-Kostak ere 3,8 M€ gainditu ditu 10 urtean, eta horrek indartu egiten du ESS-k Bizkaian duen babes-izaera orekatua.

ZENBATEKO OSOA, PROGRAMAREN ETA ESKUALDEAREN ARABERA (milaka €-ko diru-laguntza, 2015-2025eko metatua)

ZENBATEKOA PROGRAMAKA	EMANDAKO DIRULAGUNTZAK (K €)	% TOTALAREKIKO
3I	49.083 k€	% 30,8
2I	47.148 k€	% 29,6
IT	16.775 k€	% 10,5
CR	13.191 k€	% 8,3
D2	13.092 k€	% 8,2
SA	4.253 k€	% 2,7
D3	3.500 k€	% 2,2
KU	2.815 k€	% 1,8
KO	2.802 k€	% 1,8
B2	2.340 k€	% 1,5
TX	1.228 k€	% 0,8
D4	1.182 k€	% 0,7
D1	1.012 k€	% 0,6
RP	549 k€	% 0,3
B1	295 k€	% 0,2
TOTALA	159.264 k€	% 100,0

ESKUALDEA	EMANDAKO DIRULAGUNTZAK (K€)	% TOTALAREKIKO	PROIEKTU KOP.	% PROIEKTU GUZTIEKIKO
Durangaldea	43.200 k€	% 27	1.090	% 21
Txorierri	30.993 k€	% 19	920	% 18
Eskuinaldea	18.273 k€	% 11	718	% 14
Meatzaldea	11.513 k€	% 7	339	% 7
Mungialdea	10.916 k€	% 7	331	% 6
Arratia	9.355 k€	% 6	338	% 7
Ezkerraldea	8.537 k€	% 5	374	% 7
Nerbioi-lbaizabal	8.383 k€	% 5	400	% 8
Lea-Artibai	4.882 k€	% 3	175	% 3
Busturialdea	4.702 k€	% 3	134	% 3
Enkarterri	4.700 k€	3%	171	% 3
Uribe-Kosta	3.805 k€	% 2	115	% 2
TOTALA	159.264 k€	% 100,0	5.105	% 100

2I: Berrikuntzari eta inbertsioari laguntzeko programa
2I: Berrikuntza eta Inbertsioa sustatzea (hainbat programa biltzen ditu: Afipyme, A3, Berrikuntza, Bizkaia Digitala... gaur egun 2I programaren barruan daudenak)
3I: Berrikuntzari, nazioartekotzeari eta inbertsioari laguntza integrala emateko programa
B1: Ingurumen-inpaktuaren neurketa (2024tik aktibo)
B2: Inbertsio berdeak (2024tik aktibo)
CR: Enpresa berritzaileen sorrera
D1: Digitalizazio- eta jasangarritasun-planak (2021etik aktibo)
D2: Oinarrizko digitalizazio-proiektuak (2021etik aktibo)
D3: Digitalizazio aurreratuko proiektuak (2021etik aktibo)
D4: Ingurumen-berrikuntzako eta ekonomia zirkularreko proiektuak (2021etik aktibo)
IT: ETEak nazioartekotzea
KO: Elkarlanean: enpresen arteko lankidetzak (azken deialdia 2024an)
KU: Innobideak-Kudeabide Kudeaketa aurreratua
RP: Industrialdeetako enpresetan egindako inbertsioak (azken deialdia 2021ean)
SA: Bizkortze adimenduna (2020ko eta 2021eko deialdiak bakarrik)
TX: Txekeo Teknologikoak (azken deialdia 2022an)

*Iturria: ESS laguntzak (Bizkaiko Foru Aldundia)

2. ENPRESEN PARTAIDETZA ESS-REN PROGRAMETAN

2015–2025 epealdiko eskualde-azterketak aukera ematen du hiru joera ondo definitu bereizteko eskualdeen artean: bilketa handia eta egonkorra izan duten eskualdeak; denboran zehar etengabeko hobekuntza izan duten beste eskualde batzuk; eta beren bilakaeran gorakada puntualak dituztenak —ziurrenik eskala handiagoko proiektuei lotuak—, maila hori modu egonkorrean finkatu gabe.

- **Durangaldea** aztertutako ia aldi osoan laguntza gehien jaso dituen eskualdea da, eta **Txorierrik** bi ekitalditan bakarrik aurreratu du (2017an eta 2019an). Portaera hori bat dator bi eskualdeetan industria-sareak eta hari lotutako zerbitzuek duten garrantziarekin. Bestalde, Eskuinaldea hirugarren postuan dago, eta laguntza-bolumen handia eta iraunkorra duen eskualdeen artean dago.
- Eskualde batzuen bilakaera bereziki aipagarria da, urteetan zehar etengabe gora egiten dutelako. Horien artean daude **Enkarterri**, 2024an punturik altuenera iritsi dena, eta **Ezkerraldea**, 2025ean oso hazkunde nabarmena izan duena. **Lea-Artibaik** ere goranzko dinamika erakusten du 2020tik, eta errekonferazio nabarmena dago aldiaren azken zatian.
- Beste eskualde batzuetan, portaera irregularragoa da, eta igoerak eta jaitsierak txandakatzen dira, ekitaldiaren arabera. Ibilbide hori tokiko enpresek bultzatutako eskala handiagoko proiektuetarako laguntzak unean-unean lortzearekin lotuta egon ohi da. Horixe ikusten da **Mungialdean, Arratian, Uribe-Kostan edo Busturialdean**: “gorakada” puntualak agertzen dira, baina ez da joera egonkor bat finkatzen, hartualdian buru diren eskualdeetan bezala.

ESS PROGRAMETAN EMANDAKO LAGUNTZEN ZENBATEKOAK, ESKUALDEKA ETA URTEKA (mila €-tan 2015 eta 2025 artean)

ESKUALDEA	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025	TOTAL
Durangaldea	1.997 k€	4.034 k€	3.012 k€	2.991 k€	2.685 k€	3.773 k€	4.197 k€	4.611 k€	4.358 k€	4.838 k€	6.706 k€	43.200 k€
Txorierrri	1.567 k€	2.171 k€	3.299 k€	2.212 k€	3.157 k€	2.535 k€	3.420 k€	2.756 k€	3.000 k€	3.659 k€	3.217 k€	30.993 k€
Eskuinaldea	1.008 k€	1.149 k€	930 k€	1.379 k€	1.070 k€	1.954 k€	1.915 k€	2.376 k€	1.791 k€	2.686 k€	2.017 k€	18.274 k€
Meatzaldea	484 k€	1.043 k€	1.946 k€	383 k€	895 k€	1.852 k€	1.359 k€	1.700 k€	829 k€	579 k€	1.073 k€	11.514 k€
Mungialdea	769 k€	432 k€	547 k€	1.833 k€	703 k€	818 k€	1.296 k€	1.333 k€	1.700 k€	523 k€	962 k€	10.917 k€
Arratia	777 k€	678 k€	1.361 k€	483 k€	714 k€	486 k€	1.091 k€	1.066 k€	767 k€	851 k€	1.081 k€	9.355 k€
Ezkerraldea	626 k€	325 k€	689 k€	651 k€	842 k€	483 k€	788 k€	562 k€	962 k€	1.000 k€	1.609 k€	8.538 k€
Nerbioi-lbaizabal	960 k€	651 k€	669 k€	520 k€	623 k€	690 k€	718 k€	471 k€	1.226 k€	920 k€	936 k€	8.384 k€
Lea-Artibai	403 k€	371 k€	616 k€	127 k€	105 k€	310 k€	988 k€	320 k€	372 k€	827 k€	445 k€	4.882 k€
Busturialdea	282 k€	401 k€	117 k€	588 k€	1.042 k€	305 k€	740 k€	234 k€	453 k€	147 k€	392 k€	4.702 k€
Enkarterri	144 k€	288 k€	192 k€	548 k€	257 k€	249 k€	335 k€	624 k€	497 k€	581 k€	986 k€	4.700 k€
Uribe-Kosta	368 k€	198 k€	383 k€	287 k€	157 k€	473 k€	655 k€	136 k€	707 k€	255 k€	186 k€	3.805 k€
TOTAL	9.384 k€	11.742 k€	13.761 k€	12.001 k€	12.250 k€	13.927 k€	17.502 k€	15.559 k€	16.662 k€	16.866 k€	19.609 k€	159.264 k€

*Fuente: Ayudas DPE (Diputación Foral de Bizkaia)




ONDORIOAK

3. JARDUERA EKONOMIKORAKO EREMUEN EGOERA



Jarduera ekonomikorako* espazioen erabilgarritasunari dagokionez, azpimarra-
tu behar da, 2025eko datuen arabera, Bizkaiak (Bilbo izan ezik) 399** industrial-
detan 7.452 enpresa ditu. Oro har, eremu horiek batez besteko okupazio-maila
handia dute eskualde guztietan. Gainera, jarduera ekintzailea sustatzeko haz-
tegi-sarea du lurraldeak, eskualde guztietara iristen dena, eta mota horretako
proiektuetarako 32 gunek osatzen dute.

- Eskualdeetako industrialdeen batez besteko okupazioa % 90 ingurukoa da.
- **Mungialdeak okupazio-maila ia erabatekoa du** (% 95), eta, haren atzetik, zenbait eskualde daude, **%90etik gorakoa**: Lea-Artibai, Durangaldea (eskualde horretan dago poligono gehien, 91rekin), Meatzaldea eta Busturialdea.
- **%80tik behera** Uribe-Kosta bakarrik dago, %75eko okupazioarekin.
- Udal-mailan, **%50etik beherako okupazio maila** duten kasu batzuk identifikatu dira Arratian, Nerbioi-Ibaizabalen eta Uribe-Kostan: Areatza (%23), Arakaldo (%40), Barrika (%48) eta Lemoiz (%24).
- Eremu horietan kokatutako **enpresen kopuruari** erreparatu gero, Txorierri (1.419), Durangaldea (1.134) eta Nerbioi-Ibaizabal (1.033) dira nabarmenenak, eta erregistro txikiak Lea-Artibai (153), Uribe-Kosta (160) eta Enkarterri (198).
- Enpresa-haztegiari dagokienez, **Enkarterri, Eskualdea eta Ezkerraldea** nabarmentzen dira, gunek horiek erabilgarriagoak direlako, eta gunek horiek hiri-izaerakoak dira kasu guztietan.



**Enpresa-poligonoen kopurua 2024an 400 izatetik 2025ean 399 izatera pasatu da, Arratian (1), Mungialdean (1) eta Txorierri (2) poligonoak berrakibatatu direlako, Durangaldean (1), Lea-Artibain (1), Meatzaldean (1) eta Uribe Kostan (1) jarduera ekonomikorako espazioak ezabatu direlako eta Meatzaldean (1) 2 sektore bakar batean batu direlako.

3. JARDUERA EKONOMIKORAKO EREMUEN EGOERA


Jarduera ekonomikorako espazioak kontserbatzearen eta balioestearen garrantzia dela eta —bai jada ezarrita dauden enpresen iraupena bultzatzeko, bai inbertsio berriak erakartzeko—, Ekonomia Sustatzeko Sailak ingurune horiek hobetzera bideratutako laguntza-programa bat jarri zuen martxan 2018an. Hasieratik, programak **102 proiektu** babestu ditu **35 industrialdetan**, eta, guztira, **3,8M€** erabili dira, honela banatuta:

- 3,59 M€, **MP arloaren** bidez, hobekuntza-inbertsioak egitea babesten duena (guztizkoaren % 93) 68 proiektutan, eta
- 0,28 M€, **PO arloaren** bidez, asoziazionismoa eta kudeaketa- eta hobekuntza-planak egitera sustatzen da 34 proiektutan.

Programa horretarako aurrekontua, eta, ondorioz, emandako laguntzen zenbatekoa, hazi egin da aldi osoan, eta, 2025ean, gehienez ere 1,03 M€ bideratu dira espazio horiek hobetzera, batez ere Bizkaiko Foru Aldundiak 2023tik egin duen ahalegin handiagoagatik.

Eskualdeei dagokienez, **9 eskualdek** sustatu dituzte hobekuntza-jarduerak, programaren laguntzarekin, eta 2025ean Durangaldea sartu da. Laguntza-kopuruari eta proiektu-kopuruari erreparatuta, Meatzaldeak bildu ditu laguntza gehien (1,7M€ 46 proiektutan), eta, ondoren, Nerbioi-Ibaizabal. Arratia eta Enkarterri ere nabarmentzen dira, dinamismoagatik, bi eskualdeetan babestutako 10 proiektuk gainditu baitituzte.

INDUSTRIALDEAK HOBETZEKO PROGRAMAREN BILAKAERA (2018-2025, milaka € eskualdeka emana)



ESKUALDEA	EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA (K€, 2018-2025)	LAGUNDUTAKO PROIEKTUEN KOPURUA (2018-2025)
MEATZALDEA	1.781	46
NERBIOI-IBAIZABAL	965	15
ARRATIA	515	11
ENKARTERRI	190	15
LEA-ARTIBAI	158	5
EZKERRALDEA	120	3
ESKUINALDEA	113	4
BUSTURIALDEA	16	2
DURANGALDEA	12	1
TOTAL	3.872 K€	102

OHARRA: Industrialdeak hobetzeko programan parte hartu duten 9 eskualdeetatik, Durangaldea, 2025ean sartuak, POn baino ez du parte hartu.



ONDORIOAK

3. JARDUERA EKONOMIKORAKO EREMUEN EGOERA

Industrialdeak Hobetzeko Programan **hobekuntzak eta inbertsioak** (MP) **egiteko eremua xehetasunez aztertuz gero**, ikusi daiteke...

- 2019tik 2025era bitartean, **8 eskualdek** (Meatzaldea, Nerbioi-Ibaizabal, Arratia, Lea-Artibai, Enkarterri, Eskuinaldea, Ezkerraldea eta Busturialdea) inbertsioak egin dituzte beren industrialdeak hobetzeko programa honen laguntzarekin. 2025ean, **Ezkerraldeak** bat egin du lehen aldiz ildo honekin.
- 2019tik, **20 industrialdetan** egin dira jarduerak, eta horietatik 8k hobekuntza-inbertsioetarako laguntza jaso dute, 2025ean lehen aldiz.
- **Meatzaldea** sendotu egin da programaren barruan jarduera handiena duen eskualde gisa: **1,7M€ inguruko laguntza** izan du 2019tik 2025era bitartean 9 industrialdetan eta udal batean egindako hobekuntzetarako, eta, gainera, 4M€ jaso ditu 2025ean.
- Bestalde, **Nerbioi-Ibaizabalek** parte-hartze nabarmena du programaren arlo horretan, eta guztira **900k€ inguruko laguntzak** ematen ditu, eskualdeko 3 industrialdetan hobekuntzak bultzatzeko.

MP PROGRAMA	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025	GUZTIRA (miles €)
MEATZALDEA	84 k€	122 k€	93 k€	150 k€	254 k€	459 k€	545 k€	1.707 k€
P.I. ABRA				85 k€	100 k€	100 k€	100 k€	385 k€
P.I. TRÁPAGA CAUSO					100 k€	100 k€	99 k€	299 k€
P.I. GRANADA	40 k€	67 k€	8 k€	51 k€	24 k€	94 k€	5 k€	289 k€
P.I. SAN MARTÍN	44 k€	55 k€	85 k€	14 k€	10 k€	22 k€	18 k€	247 k€
P.I. AURRERA							100 k€	100 k€
P.I. TRÁPAGA UGARTE / UGARTE NESTAS							100 k€	100 k€
ABANTO ETA ZIERBENAKO UDALA							100 k€	100 k€
P.I. EL CAMPILLO						81 k€	13 k€	94 k€
P. I. UGARTE-NESTAS					20 k€	62 k€		83 k€
CDAD ABANTO ZIERBENA INDUSTRIALDEA							11 k€	11 k€
NERBIOI-IBAIZABAL	150 k€	133 k€	150 k€	75 k€	100 k€	100 k€	190 k€	898 k€
P.I. BAKIOLA	75 k€	75 k€	75 k€	75 k€	100 k€	100 k€	100 k€	600 k€
P.I. MARTIARTU	75 k€	58 k€	75 k€					208 k€
DENAC- CENTRO DE EMPRESAS DE BASAURI							90 k€	90 k€
ARRATIA			94 k€	94 k€	90 k€	133 k€	75 k€	486 k€
P.I. ERLETXE			71 k€	73 k€	90 k€	90 k€	75 k€	400 k€
P.I. BILDOSOLA			22 k€	21 k€		43 k€		86 k€
LEA-ARTIBAI					22 k€	55 k€	71 k€	147 k€
P.I. OKAMIKA					22 k€	55 k€		77 k€
BERRIATUAKO UDALA							64 k€	64 k€
ASOC. EMP. P.I. GARDOTZA							7 k€	7 k€
ENKARTERRI	3 k€	28 k€	3 k€		16 k€	93 k€		143 k€
P.I. ISASI-ZUBIETE	3 k€	8 k€	3 k€			82 k€		96 k€
P.I. EL PÁRAMO					16 k€	11 k€		27 k€
P.I. LA ACEÑA		20 k€						20 k€
ESKUINALDEA					100 k€			100 k€
PAE ASUARAN					100 k€			100 k€
EZKERRALDEA							99 k€	99 k€
CDAD CALLE KAREAGA							99 k€	99 k€
BUSTURIALDEA						13 k€		13 k€
P.I. LANDABASO						13 k€		13 k€
GUZTIRA	237 k€	283 k€	340 k€	319 k€	581 k€	853 k€	980 k€	3.592 k€

*Iturria: Industrialdeak hobetzeko programa



4. ESKUALDEETARAKO FINANTZAKETA. ESKUALDEKO LEHIAKORTASUNA BULTZATZEKO PROGRAMA



Eskualdeko Lehiakortasuna Bultzatzeko Programak (EL) **6,8M€ baino gehiago** bideratu ditu **2020 eta 2025 artean**, industria-sektorearen eta horrekin lotutako zerbitzuen lehiakortasuna hobetzera bideratutako proiektuak definitzeko, tokian-tokian eta eskualdean. Denbora-tarte horretan, programaren aurrekontua **%70 handitu da 2020an lehen deialdia egin zenetik**, eta 2025ean 1,6M€-ra iritsi da.

2021 eta 2024** bitartean, **2.477 enpresak*** parte hartu dute ELk babestutako proiektutan, eta 2024an **725** enpresak hartu dute parte. Horietatik **402** (%56) **diagnostikatuak edo elkarrizketatuak** izan ziren, **234** enpresa (%32) **lagunduak** eta **89** enpresa (%12) **prestatuak**.


PROGRAMAREN BILAKAERA: EMANDAKO ZENBATEKOA
(EL programa, 2020-2025)



*Proiektu bakoitzeko parte hartzen duten enpresen kopurua; ez dira enpresa bakarrik.

** Erabilgarri dagoen azken urtea. Txosten hau egin den unean ez dago 2025eko informaziorik, justifikazio-aldian zegoelako.

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUETAN PARTE HARTU DUTEN ENPRESEN KOPURUA (EL programa, 2024)





ONDORIOAK

4. ESKUALDEETARAKO FINANTZAKETA. ESKUALDEKO LEHIAKORTASUNA BULTZATZEKO PROGRAMA

Programa honek **2020tik 2025era bitartean emandako finantzaketaren %70 inguru 6 eskualdetan banatu** da: Lea-Artibai, Busturialdea, Durangaldea, Arratia eta Enkarterri. Hala ere, bilakaera eta dinamismoagatik bereziki positiboak dira Mungialdea (%+476), Arratia (%+375) edo Meatzaldea, 200.000 €-rainoko hazkunde jarraituarekin 2025ean (%+343).

ESKUALDE BAKOITZEKO LEHIAKORTASUNA BULTZATZEKO PROGRAMAREN ESPARRUAN (EL) LORTUTAKO LAGUNTZEN ZENBATEKOA €-tan, 2020-2025.

KOMARKA ETA ERAKUNDEEN XEHETASUNA	EL EMANDAKO ZENBATEKOA 2020	EL EMANDAKO ZENBATEKOA 2021	EL EMANDAKO ZENBATEKOA 2022	EL EMANDAKO ZENBATEKOA 2023	EL EMANDAKO ZENBATEKOA 2024	EL EMANDAKO ZENBATEKOA 2025	EMANDAKOA GUZTIRA EL	BARIAZIOA 2020-2025 (%)	BARIAZIOA 2020-2025 (%)	% TOTALAREKIKO
ARRATIA	34.169 €	118.703 €	127.377 €	186.966 €	76.606 €	162.370 €	706.191 €	% 375,20	% 111,95	% 10
BUSTURIALDEA	174.605 €	168.744 €	188.669 €	132.828 €	90.233 €	153.543 €	908.622 €	% -12,06	% 70,16	% 13
DURANGALDEA	92.844 €	134.320 €	179.014 €	147.864 €	90.960 €	140.898 €	785.900 €	% 51,76	% 54,90	% 11
ENKARTERRI	188.478 €	97.904 €	67.723 €	130.508 €	76.849 €	150.600 €	712.062 €	% -20,10	% 95,97	% 10
ESKUINALDEA	62.055 €	89.310 €	74.695 €	56.814 €	111.301 €	166.829 €	561.004 €	% 168,84	% 49,89	% 8
EZKERRALDEA	73.304 €	50.841 €	33.998 €	50.853 €	105.777 €	117.068 €	431.841 €	% 59,70	% 10,67	% 6
LEA-ARTIBAI	130.675 €	150.570 €	151.347 €	200.000 €	174.446 €	196.265 €	1.003.303 €	% 50,19	% 12,51	% 15
MEATZALDEA	45.110 €	81.638 €	117.574 €	66.631 €	81.818 €	200.000 €	592.771 €	% 343,36	% 144,44	% 9
MUNGIALDEA	18.447 €	18.148 €	29.413 €	32.722 €	55.860 €	106.2811 €	260.871 €	% 476,14	% 90,26	% 4
NERBIOI-IBAIZABAL	38.987 €	67.000 €	63.655 €	51.227 €	41.225 €	29.274 €	291.368 €	% -24,91	% -28,99	% 4
TXORIERRI	37.740 €	30.014 €	28.202 €	81.077 €	99.901 €	129.919,41 €	406.853 €	% 244,25	% 30,05	% 6
URIBE-KOSTA	40.317 €	40.230 €	38.333 €	12.510 €	18.555 €	47.744 €	197.690 €	% 18,42	% 157,31	% 3
GUZTIRA	936.731 €	1.047.422 €	1.100.000 €	1.150.000 €	1.023.531 €	1.600.792 €	6.858.476 €	% 70,89	% 56,40	% 100



4. ESKUALDEETARAKO FINANTZAKETA

2020 eta 2025 bitartean, EL programako laguntzen **%76 inguru (5,2M €)** enpresei zuzenean zuzendutako proiektuetara bideratu dira ("**A motako**" proiektuak), eta gainerako **%24 (1,6M€)** erakundeak industria-sustapen ekonomikoko erreferente gisa indartzera bideratutako proiektuetara bideratu da ("**B motako**" proiektuak).

Enpresei zuzendutako proiektuen artean, transformazio digitalean zentratutakoak izan dira, finantziazio osoaren **%19 (1,2 M€)**, eta urtero buru izan dira. Jarraian, **bezero/merkatu berriak irekitzeari lotutako proiektuak daude (1,1 M€)**, eta, ondoren, **berrikuntza-proiektuak (663 k€)**, nahiz eta azken horiek beherakada nabarmena izan zuten 2024tik aurrera.

2025ean, nabarmentzekoak dira trantsizio **jasangarria sustatzeko proiektuak, 376k €-koak (Enpresa Berdea), transformazio digitalarekin lotutakoak (352 k€) (Suspertze Digitala) eta bezero eta merkatu berriak irekitzekoak (345k€) (Salbide).**


Ekonomia eta industria sustapenean **erreferentziazkoak diren erakundeak indartzeko** proiektuei dagokienez, 2020tik 2025era, **balio-proposamena indartzeko proiektuak (425 k€) eta gobernantza-ereduak (338 k€)** nabarmentzen dira. Gainera, **eskualdeko 7 plan estrategiko** egin dira, **238 k€** baino gehiagoko zenbatekoarekin, eta Eskualdeko Lehiakortasuna Bultzatzeko Programen bidez finantzatu dira.

EMANDAKO LAGUNTZEN ZENBATEKOAK, SAILKAPENAREN ETA PROIEKTU-MOTAREN ARABERA (EL programa, 2020-2025)

PROIEKTUEN SAILKAPENA	2020	2021	2022	2023	2024	2025	Guztira	Totalarekiko %
Enpresa-lehiakortasuna hobetzea (A mota)	699.039	812.242	842.193	770.433	837.214	1.246.340	5.207.460	% 76
Transformación digital	36.818	170.307	229.760	280.253	222.891	352.518	1.292.547	% 19
Eraldaketa digitala	91.672	136.398	175.549	187.553	172.738	345.958	1.109.869	% 16
Berrikuntza	192.023	113.165	127.206	156.930	49.921	23.771	663.017	% 10
Ekonomia urdina	78.237	212.672	167.992	90.674	58.501	54.316	662.393	% 10
Jasangarritasuna			36.332	21.075	217.187	376.732	651.327	% 9
Besteak	202.131	139.525	42.862		33.125	19.967	437.610	% 6
Enpresa-lankidetzak	98.158	26.939	44.030	19.916	24.561	16.764	230.368	% 3
Enpresei laguntzeko zerbitzua		13.235	18.460	14.033	58.290	56.313	160.330	% 2
Erakundeen gaitasunak indartzea (B mota)	237.698	235.185	257.807	379.567	186.317	354.453	1.651.026	% 24
Jarduera ekonomikoko espazioak	38.592	19.080	66.818	88.928	99.389	133.793	446.600	% 7
Balio-proposamena indartzea	28.637	37.166	119.358	108.567	26.337	105.000	425.065	% 6
Gobernantza-eredua	75.951	163.965		52.272	28.648	17.816	338.651	% 5
Eskualdeko plan estrategikoa	70.696		46.158	69.501		52.259	238.615	% 3
Diagnostikoa/Enpresa-errola		14.974	25.473	60.298	31.944	30.585	163.274	% 2
Askotaririk	23.822						23.822	% 0
Eraikuntza						15.000	15.000	% 0
Guztira	936.737	1.047.427	1.100.000	1.150.000	1.023.531	1.600.792	6.858.487	% 100

ZURE ESKUALDEKO
LEHIAKORTASUNARI
BURUZ GEHIAGO JAKIN
NAHI DUZU?

ESKANEATU QRA



94 406 80 08

eskualdegarapena@bizkaia.eus

Elkarrekin eraikitzen jarraitzen dugu?

BIZKAIA OREKAN SAKONDUZ (ES)

<https://www.bizkaia.eus/es/promocion-economica/bizkaia-orekan-sakonduz>

BIZKAIA OREKAN SAKONDUZ (EUS)

<https://www.bizkaia.eus/eu/ekonomia-sustapena/bizkaia-orekan-sakonduz>



Bizkaia
orekan
sakonduz

 **Bizkaia**